

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	FITXATEGIAK INPRIMAKETA DIGITALERAKO PRESTATZEA	Iraupena	80
Kodea	MF0482_2		
Lanbide-arloa	ARTE GRAFIKOAK		
Lanbide-eremua	Inprimaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Inprimaketa digitala	Maila	2
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Arte grafikoetako faseak eta prozesuak (zeharkakoa)	Iraupena	40
	Kalitatea prozesu grafikoetan (zeharkakoa)		30
	Laneko eta ingurumeneko arriskuen prebentzioa industria grafikoan (zeharkakoa)		30
	Inprimaketa digitala prestatzea eta doitzea		60
	Inprimaketa digitala egitea		50
	Hondakinen mantentze-lanak, segurtasuna eta tratamendua inprimaketa digitalean (zeharkakoa)		30
	Lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak inprimaketa digitalean		120

A atala: GAITASUN-ERREFERENTEA

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC483_2 gaitasun-atalarekin: PRODUKTU DIGITALA INPRIMATZEKO BEHAR DEN INFORMAZIO DIGITALA ULERTZEA ETA KUDEATZEA

B atala: AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA
Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Informazio digitala jasotzeko metodoak identifikatzea, eta, artxiboak jasotzean eta fitxategia irekitzean, software egokia zehaztea, zehaztaper teknikoek jarraikiz.

EI1.1 Originalak jasotzeko ezarritako metodoak eta arauak ulertzea, eta hau egitea:

- Letra-tipoen kontrola, denak daudela egiaztatuz.
- Irudi-fitxategien kontrola: fitxategi-izen errepikatuek, fitxategi-formatu egokiak (TIFF, JPG, RAW...).
- Profilen kontrola: bereizmena, bilbea, lineatura, kolorea, grisen eskala.
- Informazioa gordetzeko euskarriak: CDak, DVDak, Zip unitatea, disko magneto-optikoak, disketeak, kanpoko disko gogorrak...

EI1.2 Informazio digitala babesteko ezarritako metodoak eta arauak ulertzea.

A2: Fitxategi digitaletan beharrezko tratamendua eta zuzenketa-metodoa aplikatzea, eta inprimaketa digitalerako makinaren ezaugarrietara moldatzea.

EI2.1 Fitxategi digitalen edukia produktu grafikoaren zehaztaper teknikoekin bat datorrela egiaztatzea, hauei dagokienez:

- Letra-tipoak eta testuak.
- Irudi-fitxategiak: TIFF, JPG, RAW...
- Irudien profilak: bereizmena, bilbea, lineatura, kolorea, grisen eskala.

EI2.2 Fitxategi digitalak haien edukiar eragiten ez dioten metodoak erabiliz tratatzea.

EI2.3 Fitxategi digitalen edukia begiz alderatzea zehaztaper teknikoekin, eta lan inprimatuaren erabilgarritasuna eta azken helburua aztertzea.

A3: Informazio digitala tratatzeko metodoak zehaztea inprimagailuaren arabera, eta prozesuaren beharrei dagokien softwarea erabiltzea.

EI3.1 Dokumentazio teknikoak eta erabiltzailearen eskuliburuak ulertu ondoren, inprimaketa digitalerako ekipoen beharrezko programa informatikoen funtzionamendua eta ezaugarriak zehaztea.

EI3.2 Fitxategiaren formatu informatikoa eta kolore-ezaugarriak ulertzea, eta fitxategia zehaztaper teknikoetara moldatzea hauei dagokien softwarea erabiliz:

- Irudi-fitxategiak: TIFF, JPG, RAW...
- Irudien profilak: bereizmena, bilbea, lineatura, kolorea, grisen eskala.

EI3.3 Fitxategi digital optimizatuak gordetzea, edukia ez dela aldatuko bermatzen duen software egokia erabiliz.

A4: Fitxategi digitalak inprimatzeko makinaren jasotze-sistemei lotutako aplikazio informatikoak ezagutzea eta aztertzea, zehaztaper teknikoek jarraikiz.

EI4.1 Software egokia erabiltzea, inprimaketa digitaleko sisteman software hauekin parametro eta ezaugarri teknikoak sartzeko baliozkotutako fitxategi digitalak irekitzeko:

- Testuak tratatzeko softwarea.
- Irudiak tratatzeko softwarea.
- Maketaziorako softwarea.
- Inprimaketa-parametroak zehazteko softwarea.

EI4.2 Fitxategi digitala inprimaketa digitalerako makinara bidaltzeko, fitxategi horren edukiarentzat egokiena den softwarea ezagutzea eta hautatzea.

EI4.3 Inprimaketa-ilarak kudeatzea, hauek kontuan izanik:

- Lortu beharreko produktu grafikoaren baldintzatzaileak.
- Egin beharreko lanaren fluxua.
- Bezeroen beharrak.

EI4.4 Inprimaketa-ilarak softwarearen bidez kudeatzea, enpresak hauei buruz duen barne-araudia kontuan izanik:

- Lan-fluxuen kudeaketa.
- PDF fitxategiak.
- ICC profilak.
- RIPak.
- Proba digitalak.

A5: Zuzeneko eta zeharkako inprimaketa digitalerako sistemak inprimatu beharreko euskarri-motari eta lortu beharreko produktu grafikoari dagokienez ezagutzea eta aztertzea haien erabilera optimizatzeko, zehaztapan teknikoei jarraikiz.

EI5.1 Inprimaketa digitalerako sistemen funtzionamendua ezagutzea irudia transferitzeko moduaren arabera.

- Zuzenekoa, eraginarekin.
- Zeharkakoa, eraginik gabe.

EI5.2 Inprimaketa digitalerako sistemak erlazionatzea, inprimatu beharreko euskarria, egin beharreko produktu grafiko eta zehaztapan teknikoak eta kalitatearenak kontuan hartuz.

EI5.3 Produktu grafiko bat egiteari buruzko kasu praktiko batean, euskarri bakar baten inprimaketa-kalitatea erlazionatzea inprimaketa digitalerako hainbat sistematan.

EI5.4 Produktu grafiko bat egiteari buruzko kasu praktiko batean, elementu bistaratzailaren eta euskarri-motaren arteko erlazioa alderatzea, eta egokiena zein den zehaztea.

Edukiak

1. Fitxategiak inprimaketa digitalerako jasotzea

- Dokumentu informatikoak babesteko metodoak, araudiak eta sistemak.
- Irudi-fitxategiak: formatu grafikoak euskarri informatikoan, konpresio grafiko, bereizmena, bilbeak, lineatura eta kolore-profilak.
- Tresna grafikoak.
- Testu-fitxategiak: testu-formatuak, tresnak, letra-tipoak.
- Informazioaren euskarriak.
- Sartzen den informazioa sistema eragileari egokitzea.
- Formatu grafikoak euskarri informatikoetan onartzea.
- Sartzen diren fitxategi guztiak bistaratzea.

2. Informazio digitalaren tratamendua

- Ekipoak: motak, ezaugarriak eta funtzionamendua.
- Bilbeen eta kolore-profilen kalitatea.
- Testuak eta irudiak tratatzea eta zuzentzea, eta kolorea kudeatzea.
- Inposizio-sistema eragilearekin maketatzea.
- Informazioa tratatzeko eta inprimagailurantz zuzentzeko kanalak.
- Irudiak tratatzeko eta zuzentzeko softwarea.
- Testuak tratatzeko eta zuzentzeko softwarea.
- Maketazioa bistaratzeko inposizio-softwarea.
- Kolorea kudeatzeko softwarea.
- Lan-fluxuak kudeatzeko softwarea.
- Aurretxekeoa, RIPak eta proba digitalak.
- Fitxategiak bidaltzea. Inprimaketa-ilarak.

3. Inprimaketa digitalaren prozesuaren ezaugarriak

- Saillapena. Funtzionamendua.
- Irudi-transferentzia.
- Produktu grafikoaren motak.

4. Inprimaketa digitalerako sistemen kontrola

- Sartzen den fitxategia egiaztatzea.
- Inprimaketa digitala, euskarri-motak eta produktu grafikoak.
- Fitxategia inprimagailura optimizatzea, transferentzia-sistemaren arabera.
- Lan-fluxu optimoa hautatzea.
- Fitxategiaren, euskarriaren eta inprimatze-makinaren arteko erlazioa egiaztatzea.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.

Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Inprimaketa digitala.